

# BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresa umeei eta haien gurasoei zuzenduta egongo da, bertan jarduera ezberdinak burutuko dira eta hoorez gain kafetegi bat izango du.

Gure ingurua aztertu dugu, eta ikusi duguna zera da; haurren aisialdirako ekintza gutxi daudela, eta daudenek ez dituztela gurasoak kontuan hartzen.

Neguko egun latzetan seme-alabak beste umeekin erlazionatzeko toki aproposa izango litzateke gure kafetegia. Umeak entretenituta egongo liratekeen bitartean, erlaxatzeko leku bat eskainiko genieke gurasoei.

Egunean zehar kafetegi normal batek bezala funtzionatuko luke, baina arratsaldeko 5etatik-7terditara haurrentzako ekintzak egingo genituzke aparte. Gurasoei seme-alabekin ekintza hauetan parte hartzeko aukera emango genieke haiek nahi izanez gero, edo bestalde, gure kafetegian erlaxatzen eman ahalko lukete denbora. Tarte hauetan nahi baldin badute gurasoek hitzaldi dinamikoetan parte hartu lezakete, lokalera gai horretan espezializatuta egongo litzatekeen pertsona bat eramango genuke, esate baterako, psikologoa, edo gurasoek proposaturiko gaiei buruz dakiten pertsonak. Horrela gurasoek haien esperientzia pertsonalak partekatzeko aukera izango lukete adibidez; bigarren semea itxaroten ari den bikotea aholkuren bila balego, lehenengo semeari nola adierazteko moduari buruz.

ASTELEHENA	ASTELEHENA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA
4-6 URTE	7-9 URTE	4-6 URTE	7-9 URTE	4-6 URTE	7-9 URTE

Astelehen, asteazken eta ostiraletan 4-6 urteko umeei zuzenduta eta astearte, ostegun eta larunbatetan 7-9 urteko umeei.

Hilero ekintza ezberdinak egingo genituzke, hala nola, yoga.

Gure enpresak balio kualitatibokoa izango duela esan dezakegu, hura bereiztuko da lokalaren diseinuagatik eta ez bertan saltzen diren produktu edo zerbitzuen prezioengatik.



Adibidez, berritasuna eta eskaintzen ditugun prestazioak izango dira beste enpresa batzuingandik bereiztuko gaituzten faktoreak. Horrez gain, eskainiko dugu gurasoen eta haien seme-alaben arteko erlazioa sendotzeak ere, lagunduko digu.



